

XABIER PEÑA-REN HERIOTZAREN AURREAN

Beti da mingarria heriotze bat, baina are gehiago euskaldunontzat hil den horrek euskararen alorrean maila gorengo bat lortu duenean.

Xabier Peña 1949. urtean ezagutu nuen; beraz, orain direla 31 urte. Garai hartan euskal ikasleen artean EIA izeneko elkarte klandestino bat zegoen, oraingo sigla berdineko elkarte politikoarekin zerikusirik ez duena. Ordukoa, Euskal Ikasle Elkartasuna zen eta bere partaide bezala Luis Mari Retolaza (euskal gobernuko Barne Ministroa dena), Josu Arenaza eta beste hainbat daude. Ni ere han nintzen, nahiz eta 1949. urtean nire ikasketak amaiturik izan eta karrera bukaerako tesia egiten egon.

EIA hark bi adar zituen, bata kulturala eta bestea politikoa. Ni, eta Xabier Peña, adar kulturalean geunden.

Urte hartan General Concha kalean, Bilbon, lokal bat bilatu nuen eta Xabier Peña jarri zen euskarazko irakasle gisan. Hor eta urte hortan sortu zen Bilboko lehen euskara ikasteko akademia bat.

Baina urte ilunak ziren haiek eta handik hilabete gutxitara, 1949. urte berean, polizia erredada bat egin zuten eta preso jausi nintzen. Han, interregoratorioetan, Xabier Peña-ren izena agertu zen, baina ez ziren ausartu hura espetxeratzan. Dena den, polizien aldetik fitxatua geratu zen.

Egia esan, Xabier Peña ez nuen asko tratatu, baina hau esan dezaket: bere harremanetan kortesia handiko gizona zela, ez nuela sekulan ere haserreturik ikusi, eta ez dudala uste inori desplanterik egiteko gizona zenik. Dena den, Xabier Peña-ri buruzko informazio osoago bat eman nahi nizuke eta horrengatik hura nik baino askoz ere gehiago tratatu zutenekin hitz egin dut, bereziki emakume birekin, eta hainbat anekdota prometatutako didate.

Xabier Peña-ren ikasleen artean Bakarne Ares, Terese eta Karmele Egileor, eta Karmele Rotaetxe aipa ditzaket. Eskongabea geratu bazen ere, horrek ez du esan nahi andreen artean xarmarik ez zuenik. Behar bada, emakumeek, beraiek duten zentzu berezi horrekin, konturatu ziren Xabier Peña-ren izaera xarmangarri hartaz eta Xabierren ekintza gutzietan, beti aurkitugu dugu emankume bat inguruan.

Adibidez, Xabierren beste ekintza batean, oso gutxi ezaguna behar bada, andreak ez zeuden urrun. Esan nahi dut, ekintza erlijiosoetan, eta honetaz ere zerbait esan nahi nuke.

Bilbon, urte ilun haietan, andre talde bikain bat zegoen: Kontxa Azaola, Tere

Rotaetxe, Julia Andia, Asun Kandina (Xabier Markiegi-ren ama), etab. Urte arriskugarriak ziren, eta euskarazko elizkizun bat Bilbon egiteak ba zituen bere problemak. Xabier Peñak talde honekin lan egin zuen, euskara Bilboko elizetara eramaten.

Euskararen historia, Bilbon, azken 30 urte hauetan, Xabier Peña-ren ekintzei loturik dago. Horrengatik bere heriotzak tristatzen gaitu, joan bait zaigu bere lanaren fruituak ikusi aurretik.

Euskal Herriak ohora dezala eta Harengan sinesten zuen Jaungoikoak eman diezaiola bere lanen ordain zorionsua.

Xabier Gereño